

Nafarroako aurrekontu proposamena. Azterketa eta ekarpenak



Euskararen aurrekontuak hobetzeko proposamen orokorrak

1.- Euskararen aurrekontuek aurrekontu osoaren %2 gainditu behar dute egokiak izateko. Hona hemen Nafarroako Gobernuak 2009az geroztik Euskarabidearen bitartez euskararen normalizazioan egin duen inbertsioaren zenbatekoa eta bere ehunekoa aurrekontu osoarekiko. Ikusten denez, oso urrun dago aipaturiko %2tik.

Urtea	Aurrekontua	Euskarabidea	Portzentaia
2009	4.301.755.030 €	3.145.653 €	0,07
2010	4.409.227.044 €	3.191.002 €	0,07
2011	4.188.279.797 €	3.030.428 €	0,07
2012	3.837.716.814 €	2.318.934 €	0,06
2013 luzapena	3.837.716.814 €	2.183.504 €	0,05
2014 proiektua	3.405.554.295 €	2.138.251 €	0,06
2015 luzatuta			
2016 proiektua	3.897.429.574 €	4.045.220 €	0,10

Oharra: Aipatu behar da 2013tik aurrera jardun ekonomikoan aurreikusitako partida garrantzitsuak ez zirela ordaindu. Beraz, eten handia dago ekarri dugun zenbakia eta ordaindutakoaren artean normalizazio prozesuaren kalterako. Kalte horren eragina normalizaziorako einbestekoak diren sektore guztietan nabaritu da.

Nafarroako Gobernu berriak, aldaketaren gobernu deitutakoak diru gehiago esleitu dio Euskarabideari. Igoera begi bistakoa da bai zenbaki absolutuetan bai eta portzentualetan ere. Hala ere, oso oso urrun dago euskararen normalizazioak dituen beharretatik. Aurrekontuaren % 0,10 kantitate irigarria da, guztiz askieza. Ez du hausten lehenagoko politika ekonomikoarekin oso txikia baita tartea. Diru esleipen horiek Euskalgintzak pairatu behar duen bizi iraute egoera gainditzeko aukerarik ez dute ematen eta zinez zailtzen dute proiektu berriak abian jartzea.

2016ko aurrekontu proposamenaren azterketa

Oso presente eduki behar dugu hizkuntza politika egiten denak eta egiten ez denak definitzen dutela. Hau da, aurrekontuei dagokienez, ez da begiratu behar bakarrik non inbertitzen den, non ez den inbertitzen ere kontuan eduki behar dugu azterketa egiteko momentuan. Horrela egingo dugu dokumentu honetan.

Bestalde, UPNren garaian bezala, aurrekontuen dokumentua erdara hutsez dago, euskarazko bertsiorik ezin izan dugu eskuratu eta gainera, Gobernu berriak euskara izendatzeko “vascuence” izendapen desegokia erabiltzen segitzen du diru sail asko izendatzeko unean.

Euskarabidea. Hizkuntza-politikarako egitura

Oro har, aurrekontuei dagokienez Euskarabideak duen egitura oso oso antzekoa da alderatzen badugu UPNren gobernuetan izan duenarekin. Hau da, gastu ardatz gehienak mantentzen dira epigrafeak aldatuta kasu askotan. Aurrekontu hauetatik ez da ondorioztatzen politika berrizailerik, gehiago edo gutxiago baina orain arte indarrean egon diren irizpideak dira mantentzen direnak. Hala ere, egon badago zer aipatu.

Helduen euskalduntze alfabetatzea.

Helduen euskalduntzeak Nafarroan bere sortze beretik zailtasun ekonomiko ugari izan ditu. Mugimenduak aurrera egin du herritarrei dirua eskatuz etengabe eta ikasleak beraiek diru lortzeko jardunetan inplikatur. Errealitate horrek ondorioak izan ditu alor askotan: irakasleen iraunkortasunean eta haien lan baldintzetan, ikasleak erakartzeko unean, baliabide pedagogikoak eskuratzeko unean... Esan liteke beraz, euskalduntze alfabetatzeak ez duela inoiz baldintza egokirik eduki bere lana behar den ziurtasenez egin ahal izateko.

Gobernu berriak 300.000 € esleitu ditu. Kantitate guztiz askieza. Pentsatu behar dugu UPNren Gobernuak 2010ean 394.381 € inbertitu zituela sektorean, krisiaren unerik gordinenetako batean. Diru kantitate hori oso urrun dago behar den aldaketatik.

Urtea	Esleitutakoa
2008	510.000 €
2009	400.000 €
2010	394.381 €
2011	394.381 €
2012	280.000 € (proiektua)
2013	luzatutakoak
2014	luzatutakoak
2015	luzatutakoak
2016	300.000 €

Diru sail hori alderatzen ahal dugu Gobernu berri honek CNAI bitartez irakasle eta funtzionario helduek ingelesa ikas dezaten egiten duen ibertsioarekin bereziki mingarria egiten da konparazioa. Izan ere, 412.446 € inbertitzen dira CNAIn bi diru sailetan. Hau da, gehiago inbertitzen da ingelesaren irakaskuntzan herri mugimenduak sustatutako euskaltegietan baino.

Honako neurri hauek ere diru saila behar dute:

Euskaltegietan aritzen diren irakasleen lan baldintzak hezkuntzakoekin parekatzeko inbertsioa.

Irakasleen prestakuntzarako diru-saila.

Euskaltegien egokitzapenarako diru-saila.

Euskara ikastearen doakotasuna bermatzeko beka sistema unibertsala eskolan ikasteko aukerarik izan ez dutenentzat gutxienez.

Helduak euskara ikastera animatzeko komunikazio kanpaina iraunkorra.

Modulazioetan pausoak ematea ahalbidetzeko diru-saila.

Enpresei hobari fiskalak publikoari arreta eskaintzen dioten langileak euskalduntzeagatik.

Hedabideak

Hedabideen kasua antzekoa da. Euskararen normalizazioaren ikuspuntutik sektore garrantzitsua da baina, garrantzi hori ez da aurrekontuetan islatzen. Gobernu berriak 250.000 € esleitu ditu sektorerako. UPNk 2010ean esleitu zuen kantitate bera, areago 2008an hedabideei begirako diru saila 310.000 €koa izan zen. Sektore garrantzitsu honek ezin du garatu bere burua diru inbertsio eskas horiekin. Euskara hutsezko prentsaren bideragarritasuna bermatzeko Gobernu berriak aurreikusitakoa ez da nahikoa inondik inora.

Euskara hutsezko hedabide espezializatuak sortzen laguntzeko ez da ezer aurreikusi. Ez du bederen, diru sail bereziturik. Bestalde, langileen formaziorako eta berrikuntzarako eta da ezer aurreikusi.

Urtea	Esleitutakoa
2008	310.000 €
2009	9.567 €
2010	230.000 €
2011	230.000 €
2012	
2013	
2014	
2015	
2016	250.000 €

Diru sail izendunak

UPNren garaia bi ziren dirua zuzenean jasotzen zuten erakundeak. Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza. Oraingoan ere, bi horiek dira zuzenean jasotzen dutenak. Hizkuntza eskubideen alorrean lan egiten duen “*Hizkuntza eskubideen Behatokia*” alor horretan Nafarroan lan egiten duen bakarra bada ere diru sail izendunik ez du ez eta Euskalgintzaren bilgunea den “*Euskararen gizarte erakundearen Kontseilua*” ere.

Euskarabidearen egitura

Euskarabideak aurrekontu txikia edukitzeak sortzen duen paradoxa da duen aurrekontuaren parterik handiena Euskarabideak berak behar duela bere egitura ordaintzeko. Erdia baino askoz ere gehiago etxean bertan gelditzen da eta hori gertatzen segituko du aurrekontu txikia duen bitartean.

Une honetan Euskarabidearen beraren gastuei begira 2.933.217 € erabiltzen dira. Hau da esleitutakoaren 3 laurden.

Euskarabidearen aurrekontuan hainbat gauza somatzen dira faltan:

Hizkuntza-eskubideen betetze mailaren segimendurako lan larroa.

Alor sozioekonomikoa euskalduntzean inbertitzeko programa. Etiketak, propaganda... Oso nabarmena da alor sozioekonomikoaren hutsunea,

hizkuntza bat normalizatzeko ezinbestekoa bada ere ez zaio erreferentziarik egiten.

Kalitatearen parametroetan euskararen kudeaketa txertatzeko baliabideak.

Adierazle sistema sortu eta herritarren eskuetan jartzeko bidea eskaini.

Euskararen normalizazioaren bidean ezarritako plangintzen ebaluazio sistema sortu eta erakunde independente bati zeregina eman.

Alor sozioekonomikoaren euskalduntzea gidatzeko egitura sortu. Sektoreko aholku batzordea sortzeko baliabideak.

Hezkuntza

Lehenengo eta behin oso begi bistakoa da Hezkuntza administrazioa euskalduntzeko programarik ez dagoela. Asko dira euskara ez dakiten irakasleak eta ez da aurreikusten haien euskalduntzerako diru sail berezirik.

Unibertsitatearen alorrean ez dago diru sailik euskalduntzeari begira. Hutsaren hurrengoa da unibertsitate publikoak euskaraz duen eskaintza eta horrek gazte euskaldun nafarrak exodora zigortzen ditu familien gaineko zama ekonomikoa oso handia izanik. Hori aldatzeko aurreikuspenik ez dago Gobernu berriaren kontuetan.

Bitxia eta esanguratsua da Euskara saila “Ingles y lenguas extranjeras” (ingelesa atzerrikoa ez balitz bezala) sailarekin alderatzea. Izan ere, lehenak 477.837 €ko esleipena du eta atzerriko hizkuntzenak ordea, 525.040 €. Ulertezina da egoera gutxiagotuan dagoen berezko hizkuntzak diru gutxiago jasotzea atzerrikoak baino. UPNk berdin jokatzen zuela gogoratu behar da. CNAI taldeak eramaten du herri ekimenezko helduen euskalduntzeak baino 100.000 € gehiago.

Gai artistikoen irakaskuntzari dagokionez, ez musikaren alorrean ez eta beste alor batzuetan ere ez da aurreikusten diru sailik haien eskaintza euskalduntzeko. Gaur egun musikaren irakaskuntza euskaraz egiteko aukera oso zaila bada ere.

Ahaztutako beste alor garrantzitsu bat lanbide heziketa da. Euskararen presentzia alor horretan oso urria da eta hala ere, aldaketaren Gobernuak ez du aurreikusten partida berezirik euskararen eskaintza areagotzeko, ez irakasleak prestatzeko, ez testuliburuak euskalduntzeko ezta euskaraz ikasteko aukera Nafarroa osora hedatzeko plangintza sortzeko ere.

Euskal curriculum lantzeko aurreikusitakorik ez dago. Behar beharrezko gaia bestalde UPNren errejimenak ezarritako pentsamendu bakarra aldatu nahi bada.

Hezkuntza sailak besteak beste honako gai hauek kontuan hartu beharko lituzke:

Belaunaldi berriak oso osorik euskaldunak izan daitezen egin beharreko irakastereduen erreformarako diru-saila.

Euskal curriculum hedatzeko diru-saila.

Irakasleriaren prestakuntzarako eta euskalduntzerako diru-saila.

Haur hezkuntzan eskaintza erabat euskalduntzeko diru-saila.

Lanbide Heziketaren eskaintza guztiz euskalduntzeko plangintza betetzeko diru-saila.

Unibertsitateen eskaintza guztiz euskalduntzeko plangintza betetzeko diru-saila.

Musika eskoletan eta bestelakoetan eskaintza osorik euskalduntzeko diru-saila.

Osasuna

Osasun sailean gainerako sailen hutsune berberak ikus daitezke. Izan ere, ez da ezer aurreikusten ez maila orokorrean ez eta hospitaletan ere herritarrekiko arreta euskaraz bermatzeko. Osasun sistemaren euskalduntzea barne bildu beharko lukeen programarik ez dago. Ez da aurreikusten beste garai batean egiten zen bezala euskara ikastearren ordezkapenak behar direla. Hizkuntza paisaia egokitzeko edo profesionalak eta gaixoak hizkuntzaren arabera identifikatzeko proposamenik ez dago.

Gobernu akordioan jasotzen diren zirkuitoak eraiki ahal izateko ez da ezer diruzten eta ondorioz nekez antolatu ahalko da hori. Berdin gertatzen da euskarri informatikoen euskalduntzeari dagokionez. Ez da dirurik aurreikusten.

Arnasgunetan oinarrizko atentzioa euskalduntzeko plangintza egiteko beharrezkoa litzatekeen aurreikuspena ez dago. Hau da, euskarak nekez egingo du aurrera Osasunbidean. UPNren garaian egin zitezkeen aurrekontuak dira euskarari dagokionez.

Honako hauek jaso beharko lituzke aurrekontu egoki batek:

Saila euskalduntzeko programa sortu.

Osasunbideako langile eta gaixo euskaldunak identifikatzeko bideak ezarri.

Arnasguneetan herritarren atentzioa euskara hutsezkoa izan dadin plangintza berezitua.

Herritar euskaldunak egoki artatzeko euskara hutsez funtzionatuko duen euskal zirkuitua sortu.

Euskarri digitalak eta oro har, software oro euskaldundu.

Osasun sistemaren euskalduntzeko plangintza epe eta helburu zehatzak ezarriz.

Medikuntza ematen duten Unibertsitateekin akordio markoa langile euskaldunak sortzeko etorkizuneko beharrak asetzeari begira.

Justizia saila

UPNren garaian Justizia sailak, Presidentzia eta Barne Saila sail berean zeudela diru sail bat zuen honako epigrafe honekin: "Plan de formación del vascuence". Oraingoan Justizia Sailean ez dago horrelakorik. Ez dago diru sail bat bera ere euskararen normalizazioarekin zerikusia duena. Sailak ez du inoiz euskalduntze planik eduki eta ez du planik izango horretarako baliabideak ez badira esleitzen, besteak beste.

Langileen euskalduntzeari begirako programarik ez dago ezta euskarrien itzulpenerako dirurik ere. Horrek iradokitzen du 2016an ez dela Justizia Saila euskaldunduko duen plangintzarik abiatuko. Hau da, aurreko urteekin alderatuz aldaketarik ez dago hemen.

Honako neurri hauek hartu beharko lirateke:

Justizia Saila euskalduntzeko programa berezia sortu plangintzaren arabera diruztatua.

Justizia administrazioko langileen euskalduntzea abiatu plangintzen erritmoen baitan.

Euskarrien euskalduntzeko dirua esleitu.

Justizia administrazioa euskaraz jaso nahi duten herritarrak egoki artatzeko zirkuitua sortzeko inbertsioak.

Arnasguneetan aritzen diren epaitegien erabateko euskalduntzerako diru-saila.

Justizia alorreko euskarri digital guztiak euskaratzeko diru-saila.

Herritarrei helarazten zaizkien mezu elektronikoetan euskararen presentzia bermatzeko inbertsioa.

Barne Saila. Segurtasuna

Barne sailak ez du haren euskalduntzea diruztatzeko programarik. Ez dago diru sailik euskalduntzearekin zerikusia duena. Seguritate eskolan ere ez da jasotzen edukiak euskaraz eskaintzeko inolako biderik ez eta euskara klaseak emateko aurreikuspenik ere. Ondoriozta daiteke beraz, Foruzaingoak, suhiltzaileak eta oro har segurtasunarekin zerikusia duten langileak euskalduntzeko plangintzarik ez dela egongo 2016an ez baita horretarako dirurik aurreikusi.

Honako neurri hauek hartu beharko lirateke kontuan:

Saila euskalduntzeko programa sortu.

Foruzaingoaren hizkuntza-normalizazioaren plangintza sortzeko eta abiatzeko diru-saila arreta handia jarri arnasguneei.

Suhiltzaileen zerbitzuaren hizkuntza-normalizazioa sortzeko eta abiatzeko diru-saila arreta handia jarri arnasguneei.

Segurtasun sistemaren informatikoaren euskalduntzea lortzeko diru saila.

Arnasguneetan euskarazko zerbitzua bermatzeko plangintza.

Herritarrei arreta bermatzeko zirkuituak sortu.

Foruzaingoa eta segurtasun sistema osoa euskalduntzeko plangintza sortu epeak eta helburuak ezarriz

Segurtasun eskolan euskara klaseak ezarri langile berrien euskara maila bermatzeko.

Parke mugikorraren errotulazioa euskaraz lehenetsita ager dadin diru-saila.

Segurtasun eskolaren euskalduntzea abiatzeko plangintza epe eta helburu zehatzak dituen sortu eta abiatu.

Nafarroako Larrialdi Agentziaren euskalduntze plana sortu eta abiatzeko diru-saila.

Positron sistema euskalduntzeko diru-saila.

Genero biolentziaren kontrako zerbitzuaren euskalduntze plana abiatzeko diru-saila

Ogasuna

Ogasunak ez du aurreikusi programarik saila euskalduntzeko. Ziur aski horren ondorioz jasotzen ditugu aurrekontuak erdara hutsez. Ez da aurreikusi jakinarazpenak eta mota guztietako euskarriak euskaraz eskaintzeko dirurik.

Honako hauek jaso beharko lirateke:

Saila euskalduntzeko programa sortu.

Teknologia berrien alorrean informazioa eta euskarri guztiak euskaraz jasotzeko bidea bermatzeko diru saila.

AUDENASA euskalduntzeko plangintza. Haren webgunea eta hizkuntza-paisaia euskalduntzeko diru-saila.

Enpresetan euskararen erabilera handitzeko laguntzak: zerga hobariak, diru-laguntzak, aholkularitza eta beste ez dira aurreikusi.

Enplegua

Sail honetan ez da aurreikusten euskaarenaldekoko hizkuntza politikarik. Langile euskaldunen errolda, diru laguntzak euskaldunak kontratatzeagatik publiko aurreko lanpostuetan, euskara formazio ikastaroetan sartzea, hizkuntza normalizazio prozesuak abiatzen dituzten enpresentzako laguntzak... Horrelako neurri bat bera ere ez da aurreikusten Gobernu berriaren kontuetan. Esan gabe doa saila bera euskalduntzeko plangintzak beharko lituzkeen baliabideak ere ez direla aurreikusten.

Inmigrazioa

Etorri berriei begira harrera egiten den unean euskararen ezagutza errazteko aurreikuspenik ez dago. Etorri berrientzako harrera planean euskarara erakartzeko biderik ez egotea huts handia da edozein hizkuntza politikatan eta ez dira doako euskara klaseak aurreikusten. Egia esan ez etorri berrientzat ez eta bertakoentzat ere. 90.000 € aurreikusten dira Gurutze Gorriarentzat lan honetarako baina ez da aurreikusten lan horretan teknikaririk euskara ikastearen beharrezkotasuna azaltzen dela bermatzeko.

Eginbeharrekoak:

Programa bat sortu etorri berriak euskararen ezagutzara erakartzeko.

Nekazal garapena, ingurugiroa eta Toki-administrazioa

Euskararen arnaguneak nagusiki nekazal alorrean daude kokatuta Nafarroan. Beraz, sail honi legokioke haren babestea eta hedapenerako estrategiak abiatzea. Gainerako sailetan gertatzen den bazala ez du aurreikusten euskara normalizatzeko jardunik.

Honako hau hartu beharko luke kontuan:

Saila euskalduntzeko programa sortu.

Udalaz gaindiko proiektuek arnaguneetan izan dezaketen hizkuntza-inpaktua aztertzeke bidea sortzeko diru inbertsioa.

Hizkuntza-politikan arnaguneok dituzten oztopoak gainditzeko plangintza garatzeko baliabideak.

Ezagutza tasa 50-70 artean dituzten udalerriak hizkuntza alorrean bizkortzeko diru saila.

Gizarte politiken Saila. Kirola eta gazteria.

Arreta berezia jarri diogu sail honi euskararen normalizazioan duen garrantziarengatik. Izan ere, gazteen artean dugun euskaldun kopurua gero eta handiagoa izango da eta kirolaren praktika euskalduntzeak eskolaz kanpoko espazio ludiko interesgarria eskaintzen du hizkuntza ohiturak finkatzeko. Kirol praktika euskalduntzea garrantzi handikoa da.

Hala ere, ez dugu topatzen aurrekontu hauetan euskarren presentzia areagotzeari begirako diru sailik.

Honako hauek jaso litezke:

Saila euskalduntzeko programa sortu.

18 urtez beherakoekin lan egiten duten kirol-monitoreak euskalduntzeko inbertsio lerroa ireki.

Laguntzak jasotzen dituzten kirol elkarteei 18 urtez beherakoekin lan eginez gero monitore euskaldunak eduki ditzaten laguntzak.

Kirolean euskara erabiltzeko sentsibilizazio kanpaina iraunkorra

Nafarroako Aldizkari ofiziala

Aldizkaria oso osorik euskaraz eta garaiz atera dadin diru-saila faltan somatzen dugu.

Ondorio orokorrak

- 1.- Aurrekontu hauek ez dute egiturari dagokionez egiturazko aldaketarik ekartzen. Diru sail gehienak lehendik datoz eta inbertsio berririk ez da ikusten. Ez dira egokiak hizkuntza politika berri bat eraikitzeko.
- 2.- Euskarabideari esleitutakoa aurrekontu osoaren % 0,10 izatea guztiz aski eza da eta ez dakar aldaketa esanguratsurik.
- 3.- Euskalgintzako sektore garrantzitsuei esleitutakoak ez du aukerarik ematen egoera txarra gainditzeko ez eta proiektu berriak abiatzeko ere. Sektore horietan aritzen diren profesionalek prekarietatean segituko dute.
- 4.- Ez dira baliabideak aurreikusi plangintzak abiatzeko ezta zirkuitoak eraikitzeko ere. Horrekin ezinbestekoa den plangintzen lan ildoak guztiz baldintzatuak gelditzen da.
- 5.- Zehar lerro izaera ez da bermatzen baliabideak Euskarabidean kontzentratzen direlako. Sail bakoitzak hizkuntza politika egiteko baliabiderik ez da esleitu.
- 6.- Euskarabideak gastatzen ditu esleitutako baliabide gehienak, hiru laurden, alegia. Hori gertatzen da oso gutxi direlako baliabideak.
- 7.- Ez dago esaterik euskararen normalizazioari dagokionez aldaketaren aurrekontuak direnik. Ez egiturari dagokionez ez eta diru kantitateei dagokienez ere.
- 8.- Askoz gehiago da kontuan hartzen ez dena kontuan hartu dena baino eta horrek ezinbestean desoreka handiak ekarriko dizkio hizkuntza politikari.

Nafarroa, 2015eko azaroaren 26an